


## HIZTEGIA

Ilbeltz: Urtarrila  
Ilzuri: Urtarrila  
Gual: Orain  
Urel: Eduki  
En artien: Beraien artean  
Ioon: Egon  
Iaaman: Eraman  
Ee: Ere  
Iaaniaun: Erenegun  
Zozkiyoobien: Zizkioten  
Beye: Baina  
Arsaldotati: Artaldetatik  
Orgiye: Poltsa  
Zazkan: Zituen  
Lazkatuik: Nazkaturik  
Beleixen: Bereala  
Fanik: Joanda  
Nabai: Nabari  
Sobre: Antza denez  
Ianiaun: Erenegun  
Iyore: Iñor ez  
Izerai: Piztu  
Txintxiliken: Zintzilikan  
Talaburni: Taloak egiteko erabiltzen zen burdinezko pala  
Itzerri: Itzarri  
Aguakin: Ahoarekin  
Aurpeye: Aurpogia  
Fanik: Joanda  
Ankarrastuek: Oinatzak  
Inkerrak: Txingarrak  
Beleixen: Bereala  
Iruzkiye: Eguzkia



**G**uai kontatuko duuzubieten istoye Andia ta Urbasa aldien pasatu emen zan neguben guai dala asko. Ola esaten debie bintzet emengo artzeiek ta jende nausiye;

Len artzei asko iooten zien Andian ta Urbasan, an bizi zienak an ureitzen zebien etxie ta neguben bakarri bizi zien beste artzeiek en errie jeisten zielakos, beye en tartien itz asko eitten zebien, komunikaziye oso ona izeten zan. Lizarraako feriya jeixten zienien an iooten emenzien itz eta putz.

Eun betien feriya jeitsi zien ta an ziela gizon kapa beltz dun bet atia zan. Oso arrarue zan, beye beste artzeiek bezela be gauzek atia zittuben ta saltzen asi emen zan. Arropangati arrarue eitten zakiyon jendiai, ez zan artzeiek bezela jazten ta iaamaten zen kapa beltza arrarue zan. Artzeiek ee beiretu zobien, ure berriye zan, iyorez ez zoon sekule ikusi.

Eunek pasatu zien ta egun betien bi artzei juntetu zien ta batak esan zoon bestiai :

- I, Pedro, ze azkenalldiyontan iri ee ardiyek faltatzen ai dazkik ez ?
- Bei, emendi otso geio daalle !
- Bei, ori uste diau gu ee, iaaniaun Pedroi 2 axui ostu zozkiyoobien.

Au ola geldittu zan, beye gio ta ardi ta axui geio faltatzen asi zien arsaldotati, artzeiek preokupatzen asi zien.

Gizon kapadune sospetxosue izeten asi zan oso arrarue zalakos. Orregati bildu zien artzei guziek Lizarraako feriyen gizona bijiletzeko intentziyuakin. Feriye akatu zanian gizonai seitzia pensatu zebien nua faten zan ta ze eitten zen ikusteko. Ta ola ein zebien; bakoitzek be orgiye artu ta seittu zoobien.

Larrezebal aldia fan zan, ta artzeiek seittu zobien. An ermitta zar bet zoon ta be onduen zoon borda sartu zan gizona. Artzeiek ez zazkan ardik beye gizona beste artzei bet zalakuen bestiengana fan zien ta ez zebien aunbeste sospetxatu.

Lizarraako feriyen artzeiek juntetzen zien bakoitzien tema berdiñe iooten zan; zerbeit arrarue zola gizon artan beye jendiek ez zekiyeen ze zan. Gio ta ardi ta axui geyo opatu zien ilda beste asko ee ez zien agertzen.

Artzeiek izutuik seitzen zebien, beie zerbeit arrarue zola quartu zien ; ardiyek ta axuyek ostutzen zien gau guziten illbetie iooten zan. Orrek misteyo geyo ekar zoon gauzai.

Ilbetie zon egun betien guardia eitten geldittu zien bakoitze be txabolan ,gaubartan Pedro artzeie lazkatuik zoon, ta kalia fan zan lotaa. Arsaldue txabolan sartu ein zen ta bia kalien geldittu zen. Gau bartan ez zan fan iyore ardiyek o axuyek artzia, gau bartan Estebanengana fan zan ta bost ardi ostu zozkiyon. Be inyerra oso aundiye izen berko zan bostak iaamateko otsuek normalien ez zebien ureitzen aunbeste inyer. Geña ez zen otsue izengo aik ardi bet oo 2 axui iaamaten zebien ta ure ee asko zan.

Gizona ee ez zan, gizonak ez zien ain abillek, ale bost ardi iaamateko ein berko zittuben be inyerrak !!!

Egun ortan ee artzei bet geldittu zan loik ezin zela ein preokupaziyuangati. Ots bet aittu zenien beleixen jeiki zen guatzeti ta kalia atia zan. Ardiyek alborotatuik zaallen elurre eitten ai zen ta elurrai beire geldittu zan, gio txistu bet bota zen, atzia beiretu zen ta kapa betz bet ikus zen. Beye bia muitziako fanik zoon. Feriya fan zanian beste artzeiekin komentatu zebien ure. Beste artzeiek ee kapabeltz oi ikus zebiela esan zoobien.

Itz eitten ai ziela artzei bet esan zen :

- Ara beire zazubie ori ez dek kapa beltz oi ?

Denak arrittuik geldittu zien, autze faten zan gizonak ee kapa beltz ure iaamaten

zelakos. Denak asko izutu zien oso gizon arrarue zalakos. Gizona beste artzeiek bezela gauzek saltzen ai zittuben beye ez zen artzeie nabai. Jendiek asko yoosten zoon, sobre gaztak, tripekiyek ta goixuek ioonko zien.

Denbora pasatu zan ta gauzek ez zien obetzen. Artzei bet idei on bet urei zen : artzei guziek biltzia txabolaik aundinien ta an gauz orri espiatzia . Ori ein emen zebien ilbetie zon ta ez zen elurrik eitten beye ianiaun elur asko ein zen ta or zon guaaño , txabola aundi betien bildu zien artzeiek be arsalduekin. Adiyek kanpuen utzi zebien lotuik, beye bi laso utzi zebien ta airi faliatzuk jarri zozkiyobien, en tartien artzei bet geldittu zan espia.

Gauberdiye allatu zan, argiyek itzeli zebien ta artzei betzuk lotaa fan zien. Bestiek espia geldittu zien, kanpuen gelditu zana, izutuik zoon, beye be einbierra ure zan.

Asko espiatu zebien beye ez zan iyore faten, ta txabolan zen artzei betzu lokartzen asi zien. Artzei bet lokartzen ai zala ots bet aittu zen, ta ardiyek muitzen asi zien ee. Orduben atzeiek iyorezi ezere esan be ta argiye izerai be, txintxiliken zoon talaburni bet artu zen ta kalia fan zan. Ordubako beste artzeyek ee kontuetu zien ta be atzeti fan zien ixixillik. Kalien zona ee erdi lotan zoon, beye ardiyek itzerri zoobien.

Ardiyen tartien beiretu zen, illargiyek ta elurrek neiko argi eitten zebien. Gauz beltz bet ikus zen, kapa antzekue zan ta ardiyen tartien zoon ee. Kapa gizonbet oo iaamatan ai zen.

Orduben barrneko artzeiek atia zien, ta kapadun bet zola quartu ein zien, ardi bet artu zen aguakin ta buelta eman zen. Buelta eman zenien ardiyen tartien zon artzeiek ikus zoon, ta a ze sustue eman zan; ez zan gizona aurpeye otsuana zakan ta gorputze gizonana; gizotsue zaan. Artzeiek buelta eman zen ta beste artzeiengana fan zan, ordubako gizotsue fanik zoon, beye yaaman zen ardiye falie zakan ta aitzen zakiyon ze aldia fan zan, geña elurrien ankarrastuek utzi zittuben.

Artzeiek su tartien zen inkerrak artu zebien ta be atzeti fan zien korriken. Gizotsue Ondatzko iturri aldia fan zan, ta artzeiek seittu ein zoobien . Gizotsue Larrezabalén zoon ermitta zaarrian ondoko bordan sartu zan, Lizarrako feriyen zon artzeie sartu zaan txabola berdiña . Artzeiek allatu zienien inkerrak barna bota zebien belarr sekuen tartien, ta beleixen artu zen su dena.

Iruzkiye atiatziako dena erre ein zan, ta orduben fan zien bordaa. Arri guziek muittu zebien, beye ez zebien ezurrik ez gorputzik opatu bakarrik kapa beltz bet opatu zebien; gizonak iaamatan zen kapa beltza.

Ortik aurria ez zien aubeste ardi ta axui desagertu ta artzeiek beti bezela ongi seittu zebien.

Geña gizon ure ez zan geyo Lizerrako feriya jeitsi be gauzek saltzia.

Guai esaten debie, aizie don bakoitzien kapa aiziakin batia muitzen dala.